



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Bizkaiko Batzar Nagusiek aho batez berronetsi dabe "Ekintzailtzarako euskal sistema" garatzeko erakundeen arteko hitzarmena

Bilbon, 2013ko urriaren 18an

Bizkaiko Batzar Nagusiek aho batez berronetsi dabe gaur, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean, hiru Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean prestatutako alkarlanerako hitzarmena. Hitzarmen horren bitartez "Ekintzailtzarako euskal sistema" garatu gura da. Euskal erakundeen helburua, euskal gizartean dagoan ekintzaile potentziala bultzatzea eta laguntza "eragingorra eta eragingarria" emotea da, Imanol Pradalesek, Ekonomiaren Sustapenerako diputatuak Batzar Nagusien aurrean egin dauen esku hartzean adierazo dauenez. Hitzarmena Ekonomia eta Enplegua Bizibarritzeko Erakundeen arteko Akordioaren barruan sartzen da, eta horren bitartez, Eusko Jaurlaritzak 5 milioi euro jarriko ditu ekintzailtzako proiektuak finantzetako.

Batzarretako talde guztiek euren poza agertu dabe akordio horren aurrean, "positiboa", "interesgarria" eta "garrantzitsua" dala azpimarratuz. EAJ-PNV taldearen eretziz, "krisialdiaren urteera bultzatzeko pausua da" eta gazteentzako aukera, batez be. Halanda be, EH Bildu eta PSE-EE taldeek akordioa berandu berronetsi dala esan dabe, Foru Aldundiak uztailearen 2an onartu ebalako. Alexia Castelo PSE-EE-ko batzarkideak uste dau, ganera, aurreikusitako inbertsinoa "eskasa" dala, planean markau diran helburuetarako.

Foru Diputatuak adierazo dauenez, ekarpen ekonomiko barri horregaz aurrera eroango diran jarduketa barriak, une honetan aldundia ekintzailtzaren kultura bultzatzeko egiten ari dan jarduketak "osatzeko" balioko dabe. Baliabide barriak, izaera batez be "industrialia, barritzailea eta teknologikoa" daukien proiektuak laguntzera bideratuko dira. Berronespena oraintxe heldu dan arren, Pradalesek esan dau bere departamentua uztailetik dabilela beharrean Aldundien eta Jaurlaritzaren artean plana koordinetako eta funtsaren banaketan eta proiektuetan lan egiteko sortu dan erakundeen arteko mahaian.

2013, TURISMOA FINKATZEKO URTEA

Lan-saio berean, EH Bilduk, azken hilebeteetan Bizkaian egondako turista kopuruaren beherakada "garrantzitsua" dala eta galdera egin deutso Aldundiari. Hotelen okupazio mailak %3,1eko beherapena izan dau, Turismo Azterketen Institutuak (IET) emon dituan eta koalizio abertzaleak jaso dituan datuen arabera. Bere defentsan, Ekonomiaren Sustapenerako diputatuak esan dau 2013. urtea "finkapeneko" urtea dala Bizkaiko turismorako, aurreko urtean izandako bisitarien sarrera historikoa izan zalako. Aitortu dau aurtengo zifrek "beherakada txikia" erakusten dabela, baina azken urteetako bilakaerea ikusita, Bizkaiko turismoa "pixkanaka



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

gorantz doala” erakusten dabela. Ekitaldia ixten danean, “Historiako bigarren urterik onena izango da”, aurreratu dau.

Aldundiko arduradunak azpimarratu dauenez, urteko lehenengo zortzi hilebeteetan egon dan sarreraren jatsiera arina, 2013ko azkeneko hiruhilekoan protagonista izango diran ekitaldien eskaintza osoak eta anitzak konpentsauko dau. Aurreko urteagaz egondako alderaketa egiteko orduan, gogoratu dau aurton ez dirala ospatu igaz antolatu ziran BEC-eko azoka garrantzitsu batzuk, Biurtekoa edo Construlan, adibidez. Ganera, bere eretxiz, beste leku batzuetako datuak be kontuan hartu beharko litzatekez, gaur egun leku horreek ez diralako estadistiketan sartzen, “hostel” izenekoetan edo BBK Live edo En Vivo jaialdietarako antolatu diran kanpalekuetan igarotako gauak, adibidez.

EUSTAT-ek emondako datuetan oinarrituz, Pradalesek adierazo dau turista kopuruaren jatsiera EH Bilduk adierazotakoa baino txikiagoa dala. IET-k emondako datuak “erdia baino gehiago” murriztuko litzatekez, erakunde horren datuak beste metodologia bat erabiliz lortzen diralako. Bisitarien jatorriari jagokonez, euskal institutuak emondako datuetatik ikusten da Estaduko beste puntu batzuetatik etorritako turista kopuruak behera egin dauela, baina nazinoartetik etorritakoen kopuruak, barriz, gora egin dauela.

BIZKAIAN SORTUTAKO ENPRESA KOPURUAK GORA EGIN DAU

Ekonomiaren Sustapenerako Diputatuak “Informe de Coyuntura Empresarial Bizkaia” izenekoak emondako azken datuak aurkeztu ditu. Datu horreetan ikusten danez, “joereari bueltea emotea lortu da”, aurtengo urtarriletik irailera, igazko hilebete horreetan sortu ziranak baino %6,4 enpresa gehiago sortu diralako. Holan, 2013ko lehenengo bederatzi hilebeteetan 486 enpresa proiektu barri sortu dira. Enpresen sorkuntzari buruzko urteen arteko indizeak %0,1eko hobekuntzea erakusten dau.

Pradales, EH Bilduk eskatuta azaldu da batzordean gai horri buruz berba egiteko, eta adierazo dau datuek, Aldunditik hartzen ari diran neurriak “egokiak eta eraginkorrak izaten ari dirala” “erakusten” dabela. Holan, gogoratu dau 2011 eta 2012 urteen artean, Bizkaiko Foru Aldundiak 120 milioi euro inbertitu dituala Plan horren garapenean. Inbertsino horri esker, 3.764 lanpostu sortu dira, 1.647 enpresa eta mikroenpresa barri eratu dira, eta 1.444 enpresak eta 1.580 saltokik laguntzea jaso dabe.

ENKARTERRIKO EKONOMIA BIZIBARRITZEKO AKORDIOAK

Batzordeari amaierera emoteko, Enkarterriko ekonomia bizibarritzeko Arauz Besteko Proposamen bi onartu dira. Euzko Abertzaleak taldeak (EAJ-PNV) aurkeztutakoa EAJ-PNV eta PP taldeen botoakaz eta Bildu eta PSE taldeen abstentzinoagaz onartu da. Proposamen horretan, prisazko eskaerea egiten jako Aldundiari, Enkarterriko ekonomia bizibarritzeko ekimenak martxan jarri daizan. Zehatzago esanez, eskaerea egiten jako Aldundiari, Aldun Nagusiak 2014. urterako iragarri dauen Enplegurako eta Lurralde Bizibarriztapenerako Funtsa eskualde horretan “lehetasunez” aktibau daian, autoenplegu eta mikrofinantzaketa ekimen barriak bultzatzeko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Ganera, Foru Aldundiari eskaerea egiten jako, Eusko Jaurlaritzagaz alkarlanean, Eskualdeko "Enkarterri Green" Plan Estrategikoaren garapena bultzatu daian. Plan horretan Enkarterriko Udal eta ekonomiaren sustapeneko eragile guztiek hartu dabe parte. Bukatzeko, eskaerea egiten jako Aldundiari, enpresei eta enpresa proiektu barriei zuzendutako informazino eta aholkularitza lehiatilea sortu daian.

PSE-EE taldeak aurkeztu dauen eta EH Bilduren eta PP-ren aldeko botoa jaso dauen ekimenak (EAJ-PNV abstenidu egin da), eskualdearen "etorkizuneko estrategia sozio-ekonomikoak identifikauko dituen" Enkarterriko ekonomia, industria, lana eta gizartea bizibarrizera bideratutako ekintzak martxan jarteko eskaerea egiten dau, "partekatutako ibilbide orri" moduan erabili ahal izango dan "Ekintza Plan Estrategikoa" prestatuz. Jarduketa hori, eskualdeko eragile politiko eta sozial "guztien" partaidetzara zabaldu beharko da. Sozialistek aurkeztutako proposamenaren bitartez, Batzar Nagusiek, eskualdeari balioa emoteko "laguntza lerroa" zabaltzea eta erabilten ez diran industriako lurren eta instalazinoen inbentarioa egitea be eskatze dabe, etorkizunean industriak bertan ezarri ahal izateko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Visto bueno al convenio para desarrollar un "sistema vasco de emprendimiento"

En Bilbao, a 18 de octubre de 2013

Las Juntas Generales de Bizkaia han dado hoy el visto bueno por unanimidad, en la Comisión de Economía y Hacienda, al convenio de colaboración elaborado entre las tres Diputaciones forales y el Gobierno Vasco con el que se pretende desarrollar un "sistema vasco de emprendimiento". La intención de las instituciones vascas es promover y apoyar "de forma eficaz y eficiente" el potencial emprendedor de la sociedad, según ha afirmado el diputado de Promoción Económica, Imanol Pradales, en su intervención en las Juntas Generales. El convenio, que se enmarca en el Acuerdo Interinstitucional de Reactivación Económica y Empleo, establece que el Gobierno Vasco aportará 5 millones de euros para financiar iniciativas emprendedoras.

Todos los grupos junteros de la Cámara han mostrado su satisfacción por este acuerdo, que han tildado de "positivo", "interesante" e "importante". Para el PNV, es "un paso para favorecer la salida de la crisis" y, de manera especial, para crear oportunidades a los jóvenes. EH Bildu y PSE-EE han censurado, sin embargo, la tardanza en ratificar el acuerdo, ya que la Diputación foral lo aprobó el 2 de julio. La juntera del PSE-EE, Alexia Castelo, cree, además que la inversión prevista es "escasa" para los objetivos marcados en el plan.

El diputado foral ha mantenido que las nuevas actuaciones que se lleven a cabo con esta nueva inyección económica, servirán para "complementar" actuaciones que la institución foral ya está llevando a cabo en la promoción de la cultura emprendedora. Los nuevos recursos irán destinados a apoyar proyectos de carácter "industrial, innovador y tecnológico", principalmente. Pese a que la ratificación llega ahora, Pradales ha asegurado que su departamento lleva trabajando desde julio en una mesa interinstitucional creada entre los ejecutivos forales y autonómico para coordinar el plan y trabajar en la distribución del fondo y la orientación de los proyectos.

2013, AÑO DE CONSOLIDACIÓN PARA EL TURISMO

En la misma sesión, el grupo juntero EH Bildu ha preguntado a la Diputación por el "notable" descenso de turistas en Bizkaia que se había producido en los últimos meses. El nivel de ocupación hotelera ha descendido un 3,1 %, según datos del Instituto de Estudios Turísticos (IET), recogidos por la coalición abertzale. En su defensa, el diputado de Promoción Económica ha dicho que 2013 es un año de "consolidación" para el turismo en Bizkaia, después de que el año precedente fuera histórico en la entrada de visitantes. Ha reconocido que las cifras del presente año arrojan un "pequeño descenso", si bien la evolución de los últimos años demuestra que el turismo vizcaíno "aumenta de forma progresiva". "Será el segundo mejor año de la historia", ha vaticinado cuando se produzca el cierre del ejercicio.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El responsable foral ha destacado que la ligera disminución de las entradas en los primeros ocho meses del año se verá compensada por una completa y variada oferta de eventos que son protagonistas en el último trimestre de 2013. Ha recordado que en la comparativa con respecto al año anterior, este año no suman importantes ferias del BEC como la Bienal o Construlan, que sí se celebran en los años pares. Además, habría que computar, según él, los datos obtenidos por otros lugares que, hoy por hoy, no se incluyen en las estadísticas como son las pernoctaciones en “hostels” o en recintos de camping como los montados para los festivales BBK Live o En Vivo.

Siguiendo datos del EUSTAT, Pradales ha asegurado que la bajada del número de turistas es menor que la indicada por EH Bildu. Se reducirían en “más de la mitad” de los ofrecidos por el IET, organismo que obtiene las cifras mediante otra metodología. En cuanto a la procedencia de los visitantes, de los datos del organismo estadístico vasco se extrae un retraimiento de los turistas procedentes de otros puntos del Estado y, por contra, un incremento de entradas y pernoctaciones de ámbito internacional.

INCREMENTO DEL NÚMERO DE EMPRESAS CREADAS EN BIZKAIA

El Diputado de Promoción Económica ha ofrecido también los últimos datos del “Informe de Coyuntura Empresarial de Bizkaia”, en los que “se ha conseguido revertir la tendencia” de creación de empresas, ya que se han creado un 6,4% más entre enero y septiembre de este año, en comparación con el mismo periodo del pasado año. En concreto, en los nueve primeros meses de 2013 han nacido 486 nuevos proyectos empresariales. El índice interanual de creación de empresas se situaría en una mejoría del 0,1%.

Pradales, que comparecía en este punto a petición de EH Bildu, ha indicado que esos datos “demuestran” que las medidas que se están adoptando desde la Diputación son “pertinentes y están siendo efectivas”. En esa línea, ha recordado que entre 2011 y 2012, la Diputación Foral de Bizkaia ha invertido en el desarrollo de ese Plan 120 millones de euros. Una inversión que ha dado como resultado la generación de 3.764 empleos, la creación de 1.647 nuevas empresas y microempresas y el apoyo a 1.444 empresas y 1.580 comercios.

ACUERDOS PARA LA REACTIVACIÓN ECONÓMICA DE ENKARTERRI

La comisión se ha cerrado con el visto bueno de dos Proposiciones No de Norma para impulsar la reactivación económica de Las Encartaciones. En la presentada por el grupo Nacionalistas Vascos (PNV), aprobada con los votos de PNV y PP, y la abstención de Bildu y PSE, se solicita de manera urgente a la Diputación, la puesta en marcha de varias iniciativas para impulsar la reactivación económica de Las Encartaciones. En concreto, se solicita que el Gobierno foral active “de forma prioritaria” en esta comarca el Fondo de Empleo y Reactivación Comarcal anunciado por el Diputado General para el año 2014, para el impulso de nuevas iniciativas de autoempleo y microfinanciación. Además, instan a la Diputación a que, en colaboración con el Gobierno Vasco, impulse el desarrollo del Plan Estratégico Comarcal "Enkarterri Green" en el



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

que han participado todos los Ayuntamientos y los agentes de promoción económica de la comarca. Por último, se solicita a la Diputación promover la creación de una ventanilla de información y asesoramiento a empresas y a nuevos proyectos empresariales.

Por su parte, la iniciativa del PSE-EE, apoyada también por EH Bildu y PP, (el PNV se ha abstenido), insta a que se realicen acciones encaminadas a la reactivación económica, industrial, laboral y social de Enkarterri que “identifiquen las futuras estrategias socio-económicas” de la comarca, mediante la elaboración de un “Plan de Acción Estratégico”, que sirva de “hoja de ruta compartida”. Esta actuación deberá abrirse a la participación de “todos” los representantes políticos y sociales de la comarca. A través de la proposición de los socialistas, las Juntas Generales solicitan, además, que se abra una “línea de ayudas” que promueva la puesta en valor de la comarca y que se cree un inventario de terrenos e instalaciones industriales en desuso para facilitar la implantación de futuras industrias.